

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). APARTAMENTUAK 2018KO URRIA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %26,0 gehitu dira 2018ko urrian

Hotel, landetxe eta apartamentu turistiko guztiak aintzat hartuz gero, ostatu-gauek gora egin dute urrian zehar hiru lurraldeetan

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2018ko urrian 25.807 izan dira, 2017ko urrikoen aldean %26,0ko gehikuntza dena.

Ostatu-gauek urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %29,5 igo dira, Bizkaian %28,8 eta Araban %18,7.

Bestela ere, 2018ko urrian 6.758 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %3,1eko gehikuntza. Lurraldeka, bidaiari-sarrerek behera egin dute Gipuzkoan %17,9 eta Araban %0,7; aldiz, gora egin dute Bizkaian %19,8.

1. taula.- Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeoko apartamentu turistikoetan. 2018ko Urria

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	2017/10
EUSKAL AE	25.807	26,0	6.758	3,1	3,82	3,12
Estatukoak	17.125	16,2	4.357	-3,4	3,93	3,27
Atzeritarrak	8.682	51,2	2.402	17,4	3,61	2,81
ARABA/ÁLAVA	7.245	18,7	1.006	-0,7	7,20	6,02
Estatukoak	5.887	13,3	926	0,6	6,36	5,65
Atzeritarrak	1.358	50,3	80	-13,8	17,00	9,76
BIZKAIA	10.524	28,8	3.814	19,8	2,76	2,57
Estatukoak	6.403	16,9	2.391	10,0	2,68	2,52
Atzeritarrak	4.121	53,0	1.422	40,6	2,90	2,66
GIPUZKOA	8.038	29,5	1.939	-17,9	4,15	2,63
Estatukoak	4.835	19,0	1.040	-26,7	4,65	2,86
Atzeritarrak	3.203	49,4	900	-4,5	3,56	2,28

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egonaldien batezbestekoa 3,82 egunekoa izan da urrian, 2017ko urrian izandako 3,12 egunekoa batezbesteko egonaldiaren gaineratik. Arabako egonaldiak iazko urrian 6,02 egunekoa izatetik 7,20 egunekoa izatera igaro dira aurtengo urrian; Bizkaiko kasuan, 2,57 egunetik 2,76 egunera luzatu dira egonaldiak; Gipuzkoan ere egonaldien batezbestekoak gora egin du, 2017ko urriko 2,63 egunetik 4,15 egunera iraganez aurtengo urrian.

2018ko urriko turista-balantzea

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 302.230 sarrera erregistratu dira 2018ko urrian, %3,5eko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaiak Euskal AEko sarrera guztien %47,9 kontzentratzen du eta sarrera guztien batuketak %5,7 egin du gora. Gipuzkoak Erkidegoko sarreraren %38,3 hartu du eta bere gorakada %3,3koa izan da; Araban, zeinek sarrera guztien %13,8 hartu baitu, %3,1eko beherakada izan da.

Ostatu-gauek %8,4 egin dute gora establezimendu turistiko hartzaileen guztizkoan, eta gorakada hori hiru lurraldeetan gertatu da: %0,9 Gipuzkoan; %8,7 Bizkaian; %6,1 Araban.

2. taula.- Gaualdiak eta sarrerek Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2018ko Urria

	Gaualdiak		Sarrerek	
	2018/10	m/m-12 (%)	2018/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	623.899	8,4	302.230	3,5
Araba/Álava	86.992	6,1	41.709	-3,1
Bizkaia	291.601	8,7	144.644	5,7
Gipuzkoa	245.306	9,0	115.878	3,3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62